# PROMOZIOAREN OINARRIAK
# HELBIDERATZEAGATIKO HOBARIA
## NOMINA EDO PENTSIOA – 2026KO AZAROA

### 1.- Erakunde antolatzailea eta promozioa
Caja Laboral Popular Coop. de Créditok —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarrieta zk.g., 20500— duenak, PROMOZIO bat antolatu du, beren nomina edo pentsioa gutxienez urtebetez jarraian helbideratzen duten bezeroentzako 400 € gordineko (324 € garbiko) hobariaren bidez.

### 2.- Promozioan nork har dezakeen parte eta nork ez
Promozioan 18 urtetik gorako pertsona fisikoek har dezakete parte, betiere 2026ko azaroaren 1aren aurreko 6 hilabeteetan nomina, pentsioa edo langabezia-prestazioa LABORAL Kutxan helbideratua izan ez badute, 2026ko abenduaren 31 baino lehen (hori barne) kanpainarekin bat egiten badute atxikipen-buletina online sinatuz eta sustapenaren baldintzak betetzen badituzte (besteak beste, gutxienez 800 €-ko nomina edo pentsioa helbideratuta izatea ondoz ondoko 12 hilabetetan).

Nominaren edo pentsioaren kontzeptupean jasotako sarrerak baino ez dira kontuan hartuko, eta honako hauen bidez etorri beharko dira: Konpentsazio Elektronikoko Sistema Nazionalaren bidez (SNCE), eskumena duen erakunde ofizial baten bidez edo zuzenean nomina ordaintzen duen enpresaren bidez.

Dagokion kodearen bidez nomina edo pentsio gisa identifikatu gabeko transferentziak edo bestelako abonuak jasotzeak ez du saria eskuratzeko eskubiderik emango.

LABORAL Kutxak, alde bakarretik, edozein parte-hartzaile promoziotik kanpo utzi ahal izango du, baldin eta iruzur- edo abusu- zantzurik edo funtzionamendu egokia aldatzen duen edozein jokabideren zantzurik badago. Nominak edo pentsioak bidegabe kobratzen badira edo haien hartzaileak ezin badira identifikatu, galdu egingo da promozio honetan aurreikusitako hobaria jasotzeko eskubidea.

LABORAL Kutxako bazkideek eta langileek ezin dute promozioan parte hartu.

### 3.- Hobaria
Hobaria 400 € gordinekoa izango da (324 € garbikoa) nomina- edo pentsio-helbideratze berrietarako. Promozio-hobaria diruzko etekin higigarria da, eta dagokion atxikipena izango du (gaur egun, % 19koa), zerga-araudi aplikagarriaren arabera.

### 4.- Promozioaren epeak
Promozioak 2027ko otsailaren 28ra arte helbideratutako nomina edo pentsioetarako balio du.

### 5.- Sariak ordaintzea
Baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, eta betetzen badira, kontuan abonu bat egingo da, 2027ko martxoaren bigarren hamabostaldian, «Nominaren edo pentsioaren hobaria» kontzeptuarekin.

### 6.- Iraunkortasun-aldia eta zigorra
Nomina edo pentsioa helbideratzeagatiko ordainketa lortzekotan, helbideratzea 12 hilabetez jarraian behintzat mantendu behar da, saria ordaintzen den egunetik zenbatzen hasita. Ondore horietarako, hil bakoitzaren 16tik hurrengo hilaren 15era bitartean kontuan egindako nomina- edo pentsio-abonuak hartuko dira aintzat. Konpromiso hori bete ezean, ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionalaren pareko zigorra ezarriko da, bete ez den epealdiaren arabera.

Adibidez, martxoaren 15ean saria jaso ondoren bezeroak 2027ko azaroaren 15etik 2027ko abenduaren 14ra bitartean ez badu jaso inolako ordainketarik nomina edo pentsio moduan —edo zenbatekoa 800 eurotik beherakoa bada—, sariaren hiru hamabirenaren pareko zigorra ezarriko zaio. Zigor hori bezeroaren kontuan zordunketa eginez gauzatuko da. Kontuak nahikoa saldo ez badu, zordunketa horrek zorpekoa sortu ahal izango du.

LABORAL kutxa

# PROMOZIOAREN OINARRIAK
# HELBIDERATZEAGATIKO HOBARIA
## NOMINA EDO PENTSIOA – 2026KO AZAROA

### 7.- Datuen babesa

Datuen tratamenduaz LABORAL Kutxa arduratuko da (IFZ: F-75076935; egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua zk.g., 20500 Arrasate, Gipuzkoa). Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da badakiela LABORAL Kutxak tratatu egingo dituela promozio honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak, batetik promozioan parte hartzea tramitatzeko, bestetik abonuaren berri emateko, eta, azkenik, abonua jaso duenaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratiaren, telebistaren, Interneten eta abarren bidez), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera. Jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango. Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango ditu parte- hartzaileak. Horretarako, bere nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiri baten bidez) protecciónd atos@laboralkutxa.com helbide elektronikora idatzi beharko du, edo, bestela, ohiko postaren bidez, helbide honetara jo: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarrieta zk.g., 20500 Arrasate, Gipuzkoa. Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa hemen irakur daiteke: https://www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa.

### 8.- Oinarriak onartzea

Promozioan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, zozketatik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek www.laboralkutxa.eus webgunean kontsulta daitezke.

### 9.- Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sortzen diren erreklamazioak edo desadostasunak ebazteko.

LABORAL kutxa